



HKEE-REN PRENTSA OHARRA, SOPUERTAKO UDALAREN 2005-EKO FISKALIZAZIO TXOSTENARENA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Sopuertako Udalaren 2005eko ekitaldiaren gaineko fiskalizazio lana mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute HKEEren Osokoaren kideek.

Udalaren fiskalizazio txostenak legezkotasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu aurrekontu, sarrera, zorpetze, langileria, diru-laguntza eta administrazioko kontratazioaren alorrean; baita kontuen aurkezpenarekin lotutako kontularitzako alderdiak ere.

Legezkotasunaren atalean, HKEEk udal jarduerari buruzko iritzi orokorra eman eta indarreko araudia zuzentasunez bete dela adierazi du. Iritzi honi hainbat salbuespen egin zaizkio eta txostenean bertan daude zehaztuak.

Aurrekontuari dagokion atalean, Udaltzak onartu behar zukeen diru-sarrera gaikuntza Alkateak onestea lege-haustea dela adierazi da.

Administrazio kontratazioari dagokionez, txostenak Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Testu Bateratuko (APKLTB) lege-haustetzat azpimarratzen ditu honako esleipen hauek: batetik, 48.006 euroko aholkularitza kontratu bat publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bitartez, lehia mugatzen duen kontratazio molde honen erabilera egiaztatuko duen behar hainbateko egiaztagiririk gabe; eta bestetik, zuzenean egindako 24.011 euroko esleipen bat, APKLTBk ezarritako prozedura saihestuz. 151.253 euroko beste esleipen batean, obra kontratu bati dagokiona oraingoan, ez zen enpresariaren dagokion sailkapen agiria eskatu.

Bi obra kontratutan, hasiera batean hurrenez hurren 260.062 eta 866.006 eurotan esleitu zirenetan, aldatetak egin dira eta % 43 eta % 23ko igoerak eragin zaizkie; honek kontratuaren xedea desitxuratzea dakar. Beste lau kontratutan ez dago erasota enpresa esleipen-hartzaileak zerga eta gizarte segurantzarekiko betebeharrak betetzen dituenik. Kontu Orokorrari dagokionez, HKEEk aldeko iritzia eman du kontuaren aurkezpen eta edukiari dagokionez, hiru salbuespen egin dituela: Bata, ibilgetuko gaien ondasun-zerrendarik ez izateagatik; bestea, ebazteko dituen auzi eta erreklamazioek zenbateko



eragina izan lezaketen neurtuko duen baloraziorik udalak ez izateagatik; eta hirugarrena, Diruzaintza Geldikina 54.000 mila eurotan gehitzea eragin duten kontabilitateko hainbat zuzenketa egiteagatik, berezko fondoak 272.000 eurotan murriztu dutenak.

Berebat, fiskalizatutako ekitaldiaz ondoko gertakari modura, HKEEK Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren epai bat dagoela eta Sotako industri poligonoko 16 lursailen salmenta eragiten duen administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu dela jakinarazi du.

Halaber, HKEEK barne kontrolari eta kudeaketa prozedurei buruzko hainbat irizpen mahairatu ditu aurrekontu, kontabilitate, langileria, kontratazio eta diru-laguntzen arloetan. Finantza egoerari dagokionez ondorioztatu da Udalak finantza egoera osasuntsua duela, izan ere 2005eko urtean sortutako aurrezki garbia ekitaldiko inbertsio garbiak finantzatzeko behar hainbatekoa ez izan arren, EAeko bere biztanleria geruzako gainerako udalen batez bestekoa baino Diruzaintza Geldikin askoz handiagoa baitu eta gainera, ez baitu zorpetzerik.